NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia Iruña, 2005eko apirilaren 18a 34. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:
Foru Lege proiektuak:
—Foru Lege proiektua, Nafarroako babes zibilari eta larrialdietarako laguntzari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

B SAILA:
Foru lege proposamenak:
—Foru Lege proposamena, 0tik 3 urtera bitarteko irakaskuntzaren inguruko neurriei buruzkoa. Ez tramitatzeko erabakia (4. or.).

E SAILA:
Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan gizarte arloko politikan duen erronka nagusietako bat mendekotasuna duten pertsonei laguntza emateko konpromisoa dela. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetza hitzarmen bat izenpe dezan IPESen Emakumearen Dokumentazio Zentroa eta Liburutegiarekin. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak onetsitako azpiegitura eta garraioen plan estrategikoari egindako alegazioen agiria babesten da. Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Demokraten Elkargunea parlamentu-taldeek aurkeztu dute (8. or.).

F SAILA:
Galderak:
—Galdera, Uharten arte garaikidearen zentro bat eraikitzeko proiektuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (9. or.).
—Galdera, irakurketa publikoaren mapa egiteari buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egina (10. or.).

—Galdera, Beteluko zahar-etxeari buruzkoa, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Íñigo andreak egina (10. or.).
—Galdera, legegintzaldi honetan enkargatutako inkestei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (11. or.).
—Galdera, antzutasuna diagnostikatua izan eta itxaron zerrendan dauden emakumeei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (11. or.).
—Galdera, Nafarroako Unibertsitateko katedrei buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (12. or.).
—Galdera, Bardeetan ingurumen hezkuntzako zentro bat paratzeari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (12. or.).
—Galdera, ingurumenaren arloko arauak ezartzeko laguntzak eskatu dituzten enpresei buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (13. or.).
—Galdera, Xabierren harrera zentro bat sortzeari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (14. or.).
—Galdera, etxeko laguntzarako dirulaguntzak emateko deialdian agiriak aurkezteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

G SAILA:
Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:
—Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa (17. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako babes zibilari eta larrialdietarako laguntzari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako babes zibilari eta larrialdietarako laguntzari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2005eko maiatzaren 2ko eguerdiko hamabiak arte luzatzea**. Aipatu Foru Lege proiektua 2005eko martxoaren 30eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, 0tik 3 urtera bitarteko irakaskuntzaren inguruko neurriei buruzkoa.

EZ TRAMITATZEKO ERABAKIA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Hiritarren legegintzarako ekimena sustatzeko batzordeak 0tik 3 urtera bitarteko irakaskuntzaren inguruko neurriei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen.

Nafarroako Gobernuak, 2005eko apirilaren 4an hartutako erabaki batean, aipatu foru lege proposamena tramitatzearekin ados ez dagoela adierazi zuen, aurrekontuko krediruen gehikuntza dakarrelako. Hori dela eta, Herriaren legegintzarako ekimena arautzen duen 3/1985 Foru Legeko 6. artikuluarekin bat, ERABAKI DA:

1. Hiritarren legegintzarako ekimena sustatzeko batzordeak aurkezturiko Foru Lege proposamena, 0tik 3 urtera bitarteko irakaskuntzaren inguruko neurriei buruzkoa, ez tramitatzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan gizarte arloko politikan duen erronka nagusietako bat mendekotasuna duten pertsonei laguntza emateko konpromisoa dela.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan gizarte arloko politikan duen erronka nagusietako bat mendekotasuna duten pertsonei laguntza emateko konpromisoa dela."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariek zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Espainiako Errege Akademiaren hiztegiaren arabera, menpekotasuna da, besteak beste, "bere kasa moldatzeko gauza ez den pertsonaren egoera." Europako Kontseiluko estatu kontseilukideen Ministroen Komiteak emandako 98. gomendioak, menpekotasunari buruzkoak, honela definitzen du: "pertsonen egoera, non autonomia fisiko, psikiko zein adimenekoa galtzearekin loturiko arrazoiengatik, eguneroko bizitzako ekintza arruntak egiteko laguntza handia behar duten." Definizio hori bera gure herrialdeko arau juridikoetan sartu da, hala nola Madrilgo Komunitateko gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 27ko 11/2003 Legean, edo Kantabriako Komunitateko menpekotasun egoeran dauden pertsonei laguntza eta babesa emateari buruzko azaroaren 20ko 61/2001 Legean. Azken horretan zehazten denez, eguneroko bizitzako ekintza arruntak dira "norberaren zaintza, etxeko oinarrizko jarduerak, oinarrizko mugikortasuna eta harreman-ekintzak."

1978ko Espainiako Konstituzioak, politika sozial eta ekonomikoaren printzipio zuzentzaileen artean –49 eta 50 artikuluak, besteak beste–, ezartzen duenez, "botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat. Halaber, ezartzen da "botere publikoek, aldizka eguneratutako pentsio egokien bidez, gutxieneko kaudimena bermatuko diela herritarrei zahartzaroan. Modu berean, eta familiaren betebeharretatik kanpo, haien ongizatea bultzatuko dute gizarte-zerbitzuen bidez, beraien arazo bereziei kasu eginez, osasunari, etxebizitzari, kulturari eta aisialdiari dagokienez."

Konstituzioaren adierazpen horiei dagokienez, bertan jasotzen diren eskubideak ez dira zuzenean eta berehala aplikatzekoak eta, horrenbestez, eraginkorrak izanen dira legeen bidez garatzen diren heinean. Horixe gertatu da, beste kasu askoren artean, Konstituzioaren 49. artikuluan ezarritako agindua garatu zuen Minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearekin, edota Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearekin. Azken honek ezartzen dituen prestazioen artean, laguntza soziosanitarioa ezartzen da, "osasun eta gizarte zerbitzuen aldi bereko

esku-hartze eta lankidetza behar duten gaixoentzako, beren autonomia handitzeko, mugak arintzeko eta gizarteratzea errazteko". Baina askotan, Konstituzioko xedapenak garatu eta herritarren eskubideak aitortu behar dituzten legeak autonomia mailakoak dira, hain zuzen, autonomia erkidegoek beren autonomia estatutuetan jaso dutelako estatuak ezarritako oinarrizko legeen garapena eta osasun eta Gizarte Segurantza arloetako gauzapenaren gaineko eskumena, baita Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa eta gizarte zerbitzuen edo gizarte laguntzaren arloko eskumen osoa ere.

Horri lotu behar zaio toki araubidearen oinarriak arautzen dituen legeak xedatzen duenez, udalen eskumena dela "gizarte eta sustapen zerbitzuak ematea eta baita gizarteratze zerbitzuak ere". Autonomia erkidegoetako legeek toki entitateei esleitzen dizkiete zerbitzuak oinarrizko mailan koordinatzeko eta emateko eskumenak.

Esparru hori kontuan hartuta, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak menpekotasuna duten pertsonei laguntzeko sistema publiko bat antolatzea eta garatzea.

Europako hainbat herrialdetan menpekotasuna duten pertsonei gizarte babesa emateko eredu desberdinak arautu eta programatu dituzte. Menpekotasuna duten pertsonen babesa premia bihurtu da Europa osoan. Espainian, badirudi Estatuko Gobernua menpekotasuna duten pertsonei babesa emateko sistema bat ezartzearen alde dagoela. Nafarroari dagokionez, berriz, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak 2004ko apirilaren 6an Parlamentuan eginiko agerraldian aitortu zuenez, "ezinbestekoa da menpekotasuna duten pertsonen behar soziosanitarioei ekitea, Europar Batasuneko herrialde gehienetan egin den moduan". Agerraldi horretan, kontseilariak onartu zuen eztabaida zientifikoa eta politikoa irekita dagoela; izan ere, erakundeek eta gizarte aktoreek era zilegian interpretatzen dituzte arazoaren inguruan dituzten ikuspegi desberdinak eta konponbideak.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Foru Komunitatean menpekotasuna duten pertsonei laguntza emateko sistema publiko baten beharraz oharturik, Nafarroako Gobernua premiatzen du menpekotasuna duten pertsonekiko konpromisoa gizarte politikaren erronka handietako bat bezala bere gain har dezan eta sei hilabeteko epean egin dezan Nafarroan menpekotasuna duten pertsonei laguntza emateko sistema kudeatzeko oinarrizko plana, Parlamentuak eztabaidatu eta onets dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen har ditzan osasun planak, gizarte zerbitzuen planak eta menpekotasuna duten pertsonei laguntzeko programak harmonizatzeko neurriak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oinarrizko plana egiteko prozesuan kontuan har dezan ukitutakoen, beren familien, profesionalen eta gizarte-eragile interesdunen partaidetza.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2006ko Nafarroako aurrekontu orokorretan helburu horretarako kontusail bat sar dezan, Nafarroan menpekotasuna duten pertsonei laguntza emateko sistema kudeatzeko oinarrizko plana egin eta abian jartzeko.

Iruñean, 2005eko apirilaren 5ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetza hitzarmen bat izenpe dezan IPESen Emakumearen Dokumentazio Zentroa eta Liburutegiarekin.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetza hitzarmen bat izenpe dezan IPESen Emakumearen Dokumentazio Zentroa eta Liburutegiarekin".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Kultura eta Turismo Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariek zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

1960ko hamarkadan, emakumeen mugimenduak nabarmen egin zuen gorantz eta gizonezkoek zituzten eskubide berak lortzeko borroka egiteaz gain, gizonezkoen eredu eta balioak zalantzan jarri zituzten eta joera sexistarik gabeko mundua sortzeko ahalegina egin zuten.

Mugimendu horrek lortu zuen generoen berdintasunarekin zerikusia duten gaiak nazio eta nazioarteko plano politikoan jartzea eta gobernuen agenda politikoetan sartzea. Emakumeek, beren bizimodua eta munduan kokatzeko modua zalantzan jartzean, ezagutzeko moduak ere zalantzan jarri zituzten.

Testuinguru horretan (80 hamarkada) sortu ziren Espainiako emakumeari buruzko dokumentazio zentro gehienak. Zentro horiek emakumeen elkarteei, berdintasunaren aldeko erakundeei edo unibertsitateko mintegiei loturik sortu ziren. Baina guztiek informazio sare bat osatu dute, denborarekin hazi egin dena.

Nafarroako lehen dokumentazio zentroa duela 29 urte sortu zen. Halaber, Emakumearen Liburutegia-Dokumentazio zentroa 1985eko martxoaren 8an inauguratu zen. Liburutegiak honek hiru helburu zituen:

1. Emakumeek idatzitako literatura eta emakumearekin loturiko gaiei buruzko saiakera hedatzea, emakumeen artean eta jendearen artean, oro har.

2. Nafarroan ikerketak egiteko dokumentuen eta liburuen funtsa osatzea, horrenbestez, ikertzaileei eta gai horietan interesa duten profesionalei zuzendua.

3. Irakurzaletasuna bultzatzeko eta kultura zabaltzeko gunea izatea,emakumeen intereseko gaiekin lotuta.

Hogei urte pasa ondoren funtsak bilatzen, eskuratzen, katalogatzen eta antolatzen, liburutegiak 8.500 erreferentzia baino gehiago ditu, prozesu informatikoen bidez katalogaturik. Horien artean monografiak, aldizkarien bildumak, literatura grisa (dokumentuak, biltzarretako ponentziak, artikuluak eta txostenak), liburuxkak, emakumeari buruzko lege eta berri hautatuak aurki ditzakegu, bideotekaz gain.

Iruñean hiru unibertsitate daude, generoarekin loturiko ikasketetan gero eta interes handiagoa duten ikasle askorekin. Halaber, emakumeek gero eta gehiago parte hartzen dute elkarteetan, gizartean eta politikan eta gehiago irakurtzen dute, Horrek guztiak pentsarazten digu zerbitzu honek gero eta etorkizun handiagoa duela.

Nafarroako erakundeek ez diete ezaugarri horiek dituen zerbitzurik ematen herritarrei. Hori dela eta, sozialisten taldeak uste du beharrezkoa dela Kultura Departamentuak dokumentazio zentro hori babestea, Nafarroan arlo horretan dagoen kultura eta genero-eskaintza bakarra baita eta ibilbide ezaguna baitu.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Kultura eta Turismo Departamentuak lankidetza hitzarmen bat sina dezan IPESen Emakumearen Dokumentazio Zentroa eta Liburutegiarekin, honek egonkortasun handiagoa izateko eta behar bezalako baldintzekin lan egiten jarraitu ahal izateko, IPESen Emakumearen Dokumentazio Zentroa eta Liburutegiak orain arte eskaini dituen zerbitzuak optimizatzeko eta zabaltzeko xedearekin.

Iruñean, 2005eko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak onetsitako azpiegitura eta garraioen plan estrategikoari egindako alegazioen agiria babesten da.

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Demokraten Elkargunea parlamentu-taldeek Nafarroako Gobernuak onetsitako azpiegitura eta garraioen plan estrategikoari egindako alegazioen agiria babesteko mozioa aurkeztu dute.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariek zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) eta Nafarroako Demokraten Elkargunea (CDN) parlamentu-taldeetako eledun Carlos García Adanerok eta Juan Cruz Alli Arangurenek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

2005eko martxoaren 21ean, Sustapen Ministerioak jendaurrean jarritako azpiegitura eta garraioen plan estrategikoari egindako alegazioen agiria onetsi zuen Nafarroako Gobernuak.

Badakigu azpiegituren plangintza funtsezkoa dela Foru Komunitatearen garapenerako, baita azpiegiturek gaur egungo gobernuak gainditzen dituztela eta denbora luzez egoteko asmoz egiten direla ere. Hartara, gure ustez beharrezkoa da alderdi politikoen babesa, baita toki entitate eta bestelako gizarte nahiz ekonomia eragileena ere, gure Foru Komunitateak ahalik eta azpiegitura onenak izan ditzan etorkizunean. Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak babesten du Nafarroako Gobernuak aurkeztutako azpiegitura eta garraioen plan estrategikoari egindako alegazioen agiria eta bat egiten du agiri horren edukiarekin. Halaber, aipatu alegazioen agirian azaldutakoa kontuan hartzeko eskatzen dio Sustapen Ministerioari.

Iruñean, 2005eko apirilaren 7an

Eledunak: Carlos García Adanero eta Juan Cruz Alli Aranguren

F saila:
GALDERAK

Galdera, Uharten arte garaikidearen zentro bat eraikitzeko proiektuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo andreak egindako galdera, Uharten arte garaikidearen zentro bat eraikitzeko proiektuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hedabideen bitartez jakin dugunez, aurtengo ekainean arte garaikidearen zentro bat eraikitzen hasteko asmoa du Uharteko Udalak.

Zentro hori eraikitzeko aurrekontua 5,4 milioi eurokoa izanen da. Dirudienez, arte garaikidearen zentro horren instalazioetan beste zerbitzu batzuk ere izanen dira, hala nola auditoriuma, erabilera anitzeko gelak, kafetegia, jatetxea eta abar.

Uharteko Udalak fundazio bat eratzeko asmoa du. Fundazio horrek arte garaikidearen zentrorako eta bestelako erabileretarako eraikina alokatuko du eta beroren kudeaketa enpresa bati emanen dio.

Dirudienez, Uharte fundazioak beste administrazio batzuen partaidetza lortu nahi du, horien artean, Nafarroako Gobernuarena.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Zer laguntza eta finantzazio emanen dio Nafarroako Gobernuak Uharteko Udalak hurrengo ekainean abian jarri asmo duen proiektu honi?

2. Proiektu hori babestean, Nafarroako Gobernuak behin betikoz baztertzen al du Iruñean arte garaikidearen zentro bat eraikitzeko asmoa?

Iruñean, 2005eko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, irakurketa publikoaren mapa egiteari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESCARGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egindako galdera, irakurketa publikoaren mapa egiteari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Miren Egaña Descarga Aralar parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoari jarraikiz, honako galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo kontseilariak erantzun diezaion:

2003ko irailaren 23an, Hezkuntza eta Kultura Batzordean eginiko agerraldian aipatu zenuen, Liburutegiei buruzko Legearen 3. artikuluari jarraikiz, ongi zehazturiko bi arlori emanen zitzaiela lehentasuna: irakurketa publikoaren mapa idaztea eta, ondoren, Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren zerbitzuen kartera zehaztea. Harrezkero urte eta erdi pasatu denean, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Hasi al da Nafarroako irakurketa publikoaren maparen idazketa?

– Baiezkoan, nor ari da idazten? Lantaldea nortzuek osatzen duten jakin nahi dut. Departamentuz kanpoko giza baliabideak badira, enpresa edo entitatearen izena jakin nahi dut. Zer aurrekontu izanen du proiektuak? Zer kontusailen kontura eginen da?

Iruñean, 2005eko apìrilaren 6an

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

Galdera, Beteluko zahar-etxeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AURELIA LUMBRERAS ÍÑIGO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Aurelia Lumbreras Íñigo andreak egindako galdera, Beteluko zahar-etxeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumbrerasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Beteluko zahar-etxeari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

– Zergatik eta zer irizpideren arabera zahar-etxeko 45 tokietatik bost besterik ez dira itundu?

– Eskualdean ba al da "egiazko beharrik" eskatu duten udalekin –Leitza, Goizueta, Areso, Arano, Larraun, Lekunberri, Araitz, Betelu, Basaburua eta Imotz– tokiak ituntzeko? Zahar-etxeetako tokietatik, zenbat dira publikoak eta zenbat itunduak? Zenbat dira herri horietan dauden itundutako tokiak?

– Emandako toki itunduen kopurua justifikatzen duen txosten teknikoa eskuratu nahi dut.

Iruñean, 2005eko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Aurelia Lumbreras Íñigo

Galdera, legegintzaldi honetan enkargatutako inkestei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, legegintzaldi honetan enkargatutako inkestei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan eskatu dituen inkestei dagokienez, hauxe jakin nahi dut:

– Zenbat inkesta egin dira legegintzaldi honetan Nafarroako Gobernuko departamentuetan? Zer helbururekin?

– Zenbat iritzi-inkesta egin ditu Nafarroako Gobernuak eta zer helbururekin? Zein izan da inkesta horien kostua? Zer aurrekontu kontusail baliatu da?

– Zenbat gogobetetasun-inkesta egin dira Nafarroako Gobernuarentzat eta zer helbururekin? Zein izan da inkesta horien kostua? Zer aurrekontu kontusail baliatu da?

– Zenbat inkesta soziologiko egin dira Nafarroako Gobernuarentzat eta zer helbururekin? Zein izan da inkesta horien kostua? Zer aurrekontu kontusail baliatu da?

Iruñean, 2005eko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, antzutasuna diagnostikatua izan eta itxaron zerrendan dauden emakumeei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, antzutasuna diagnostikatua izan eta itxaron zerrendan dauden emakumeei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2005eko apirilaren 4an bidali zenidaten laguntza bidezko ugalketa teknikei eta ama izateko ametsa betetzeko teknika horiek behar dituzten emakumeak Donostiako Quirón klinikara igortzeari buruz eginiko galderaren erantzuna, baina bertan ez zaie erantzun gai horri buruzko informazioa osatzeko interesgarria diren bi galderari.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

• Zenbat emakume nafar dago antzutasuna diagnostikatuta eta laguntza bidezko ugalketa tekniken zain?

• Zer asmo du Osasun Departamentuak guraso izateko nahiari erantzun egokia emateko eta horretarako emakumeak beste autonomia erkidego batera ez bidaltzeko, itxaron zerrenda luzeetan

sar ez daitezen, kontuan hartuta gure osasun sistema aitzindari, aurreratu eta kalitatezkotzat hartzen dela?

Iruñean, 2005eko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Nafarroako Unibertsitateko katedrei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Nafarroako Unibertsitateko katedrei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Jakin dut Nafarroako Unibertsitatean sortu berri den Ondare Katedrak Nafarroako Administrazio Publikoaren finantzazioa izanen duela 2005., 2006. eta 2007. urteetarako. Hain zuzen, 361.095 euro erabiliko ditu horretarako.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

• Nafarroako Unibertsitate Katolikoaren zenbat katedra finantzatzen ditu Nafarroako Gobernuak?

• Hala bada, zenbat diru inbertitzen du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Unibertsitate Katolikoaren katedrak diruz laguntzeko?

Iruñean, 2005eko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Bardeetan ingurumen hezkuntzako zentro bat paratzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Bardeetan ingurumen hezkuntzako zentro bat paratzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Kutxa Fundazioak ingurumen hezkuntzarako zentro bat eta ikasleei, familiei, gazteei eta taldeei zuzenduriko campus bat sortu nahi ditu Bardean. Bertan naturaren ikasgela egiteko asmoa du, hiru gela izango dituena, baita landare eta animalien eskola laborategi bat, jatetxe bat, eta herrixka baten moduan banatutako etxetxo batzuk ere. Halaber, beste zerbitzu batzuk ere iza-

nen dira, hala nola Bardeako museoa, animalien zoo txiki bat eta anfiteatro bat.

Nafarroako Kutxa Fundazioak proposaturiko gaietako batzuek Senda Viva zentroa ekartzen digute gogora.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

• Printzipioz proiektu horren alde banago ere, Bardean instalatuko den proiektu berri hori Arguedasko Senda Viva proiektuaren ordezkoa izanen al da?

Iruñean, 2005eko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, ingurumenaren arloko arauak ezartzeko laguntzak eskatu dituzten enpresei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, ingurumenaren arloko arauak ezartzeko laguntzak eskatu dituzten enpresei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2005erako aurrekontu orokorretan murriztu egin da ingurumenerako inbertsioei emateko laguntzen arloa. Horren ondorioz, arazoak sortu dira enpresa batzuetan, haien ustez larriak izan daitezkeenak; izan ere, ingurumenaren arloan Nafarroako administrazioaren laguntza izateko aukera desagertu da. Larriena da, zalantzarik gabe, administrazioak ingurumenaren arloan inbertitzeari utziko diola, eta gure ustez, hori kaltegarria da Nafarroarentzat eta nafar guztientzat.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

• Zenbat enpresek eskatu zituzten dirulaguntzak ingurumenaren arloko ISO 14001 eta beste arau batzuk ezartzeko 2003., 2004. eta 2005. urteetan?

• Zenbat diru erabili du Ingurumen Departamentuak lehen aipatutako urteetan enpresei ingurumenaren arloko hobekuntzak egiteko laguntzak emateko?

Iruñean, 2005eko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Xabierren harrera zentro bat sortzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Xabierren harrera zentro bat sortzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Frantzisko Jaso Azpilicuetaren –gerora San Frantzisko Xabierkoa– jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak ari da prestatzen Nafarroako Gobernua eta, horren ondorioz, hainbat azpiegitura eraikitzen ari dira. Horietako batzuk jada ezagunak genituen, baina beste batzuen berri ere izan dugu.

Ángel Ciprés Xabierko alkateak elkarrizketa batean adierazi zuenez, "bisitarientzako abegi zentro bat eraikitzen ari da; bertan, joaten diren guztiek Xabierko eta eskualde osoko eskaintza aurkitu ahalko dute".

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

• Abegi zentro hori turismo bulego bat da?

• Eskualdeko landa-etxeetan, aterpetxeetan eta hoteletan erreserbak egiteko zentrala da?

• Zer udalekin hitz egin da proiektu hori eraikitzeko?

• Eskualdeko zenbat udal inplikatu dira abegi zentroaren eraikuntzan?

Iruñean, 2005eko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, etxeko laguntzarako dirulaguntzak emateko deialdian agiriak aurkezteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak etxeko laguntzarako dirulaguntzak emateko deialdian agiriak aurkezteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko uztailaren 5eko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko abuztuaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du etxeko laguntzarako dirulaguntzak emateko deialdian agiriak aurkezteari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz:

Galdera honen bidez jakin nahi da zergatik Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak hainbat agiri eskatzen dizkien herritarrei etxeko laguntzarako dirulaguntzak emateko; izan ere, hori Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35 f) artikuluan ezarritakoaren aurkakotzat jotzen da. Zehazki, hona auzitan jartzen den dokumentazioa:

– 65 urte baino gehiago dituzten bizikideen txosten medikoak eta erizaintzakoak eta, kasu

bada, minusbaliatuenak eta osasun arazoak dituzten beste bizikideenak.

– Minusbaliotasun deklarazioa, 65 urtez beherako interesdunen kasuan.

– Interesdunen eta beren bizikideen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena, edo, kasua bada, aitorpen hori egin beharrik ez izatearen ziurtagiria.

Horri dagokionez, esan behar da Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legearen 35.f) artikuluak xedatzen duela "herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko kasuan kasuko prozedurari aplika dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk". Arau horrek debekua ezartzen du administrazioarentzat, hain zuzen, herritarrak alferrik edo modu irregularrean eskatutako agiriekin "gogaitzekoa". Finean, xedapen horren helburua da alferrikako tramiteak edo behin eta berriro tramite berak egin behar izatea saihestea, jardun duen administrazioak bai baitauka behar den informazioa eta dokumentazioa.

Galderan aipatzen den kasuan, gure ustez, ez da aipatu xedapena urratzen, hainbat arrazoirengatik:

Lehenik eta behin, ezin da ahaztu ordenamendu juridikoa sitematikoa dela eta, horrenbestez, 30/1992 Legeko 35 f) artikulua ordenamenduko beste arau batzuekin uztartu behar dela. Hori dela eta, kontuan hartuta kasu honetan eskatutako informazioak izaera pertsonala duela eta intimitaterako eskubidea ukitzen duela, Konstituzioko 18. artikulua bermatzeko ezarriak diren ondoko arauak aipatu behar dira:

– Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa. Lege honen arabera, "zalantzarik gabeko" baimena behar da datu pertsonalak eskuratu ahal izateko.

– Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea. Lege horrek ere intimitatearen eta konfidentzialtasunaren errespetua bermatzen ditu.

– Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra. Horren bidez ezartzen da zerga administrazioak eskuratutako datuak isilpekoak izatearen eskubidea. Datu horiek erabiliko dira kasuko administrazioak kudeatu behar dituen zerga edo baliabideak aplikatzeko.

Finean, arau horietatik ondorioztatzen da intimitaterako eskubideak eskatzen duela, oro har, jardun duen administrazioak eskura dituen datuen kasuan ere, ukitutakoaren baimena behar dela datu horiek eman ziren bestelako xedeetarako erabiltzeko, legeetan ezarritako kasuetan izan ezik. Horri lotuta, kontuan izan behar da kasu honetan eskatutako informazioa dirulaguntza eskatzen duenaren datu pertsonalei buruzkoa dela, baina, aldi berean, uki ditzakeela berarekin batera bizi diren hirugarren pertsonak ere, eta kasu horretan beharrezkoa litzateke horien guztien baimena izatea informazio hori ofizioz eskuratu ahal izateko.

Horrekin batera, beste ohartarazpen praktiko batzuk ere egin daitezke, hala nola:

Aipatzen diren osasun txostenak eskaerarekin batera doan test normalizatu baten bidez egin behar dira, eskaera aurkeztu aurre-aurretik. Izan ere, gaur egungo osasun egoera da baloratu behar dena. Horrenbestez, txosten horiek ez dira, galdera-egileak dioen moduan, "jardun duen administrazioak eskura dituen dokumentuak", 30/1992 Legeko 35 f) artikuluaren zentzu hertsian. Azaldu denez, xedapen horren bidez alferrikako jarduketak saihestu nahi ditu; baina kasu honetan ezinbestekoa da, gaur egungo egoera baloratu ahal izateko, interesduna osasun etxera joatea txostenak betetzeko eta, horrenbestez, lehen eginiko aipamen juridikoak alde batera utzita ere, agiria ofizioz eskuratzeak ez luke ekarriko zama kentzerik herritarrarentzat.

Bestalde, bizikideen pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga Foru Komunitateak ordainaraztea ohikoena bada ere, batzuetan salbuespenak gertatzen dira, bereziki beste autonomia erkidegoekin muga egiten duten eskualdeetan. Hori dela eta, gerta liteke –eta hala gertatzen da batzuetan— zergak beste autonomia erkidego batean ordaintzea. Horri lotuta, pentsatu behar da bizikidetzako unitatea aldatu izan daitekeela duela gutxi, lehen Foru Komunitatetik at bizi zen kideren baten sarrera dela eta.

Eta gauza bera pentsa daiteke minusbaliotasun deklarazioari dagokionez.

Horrenbestez, azaldutakoa ikusirik, administrazio honek egokitzat eta legezkotzat jotzen du interesdunek dokumentazio hori aurkeztu behar izatea, kontuan hartuta, nagusiki, auziak intimitaterako eskubidearekin lotura duela eta aztertu beharreko egoera dirulaguntza eskatzen duena ez beste pertsona batzuena izan daitekeela.

Hala ere, esan behar da aipatu 35. artikuluaren bidez bermatzen dena, azken finean, administrazioak jada badituen dokumentuak ez aurkezteko eskubidea dela. Horrenbestez, herritarrak berak, eskabidea aurkezterakoan, dokumentu horiek ez aurkezteko borondatea adieraziko balu, dokumen-

tu horiek non dauden adierazita, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak, eskubide hori errespetatuz, aipatu dokumentuak eskatuko lituzke; izan ere, kasu honetan, eta betiere dokumentu horiek beste pertsona batzuen daturik izango ez balute, ulertuko litzateke horretarako baimena eman dela eta intimitaterako eskubidea, aipatu den moduan, 30/1992 Legeko 35. f) artikuluan aitortutako eskubidearekin lotu behar dena, babesten dela.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2005eko abuzturen 2an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa.

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak, 2005eko apirilaren 1ean, honako ebazpen hau eman zuen:

Nafarroako Comptos Ganberako idazkari nagusiak proposamen txosten bat eman du ganberako legelari izateko bi lanpostu, erakunde horren plantilla organikoan daudenak, betetzeari buruz. Erakunde horretako Zerbitzu Juridikoek eta Kontu-hartzailetza Zerbitzuek, hala nola administratzaileak ere, adostasun txostena eman dute. Horiek horrela,

EBATZI DUT:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Ondoren ematen dira haren arauak.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2005eko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

Hona hemen deialdi honetako oinarriak:

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzea: bata txanda irekikoa eta bestea igoera txandakoa.

1.2. Oposizio-lehiaketa honetan honakoak izanen dira arau: 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua eta, horren osagarri, Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta hura garatu eta betearazteko eman zen Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretua.

1.3. Hautapen probak gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuaziora ez iristeagatik, bete gabe gelditzen bada igoera txandako lanpostu hutsa, orduan txanda irekikoari gehituko zaio.

Bestalde, igoera txandan lanpostu hutsak baino izangai gehiagok gainditzen badute, gainditu baina lanposturik eskuratzen ez dutenek txanda irekiko lanpostu hutsa eskuratzeko aukera izanen dute, txanda horretako izangaiekin lehia garbian, azken puntuazioaren arabera.

Era berean, txanda irekiko lanpostua eskuratzeko aukera izanen dute, aurreko lerroaldean adierazitako moduan, deialdiko 7.3. oinarrian agiriak aurkezteko ezartzen den epea amaitzen denean txanda horretan parte hartzeko eskakizun berariazkoak betetzen ez dituzten igoera txandako izangaiek.

1.4. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiek Nafarroako Comptos Ganberako funtzionarioentzat eta, bereziki, legelari lanpostuarentzat ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen dituzte.

Bere eginkizunak Nafarroako Comptos Ganberaren Antolaketarako Ganberako lehendakariak 1986ko maiatzaren 20an emaniko ebazpenaren bidez onetsi zuen Erregelamenduaren 6. artikuluan auditoriako teknikari lanpostuarentzat ezarri zirenak dira (1996ko maiatzaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala), alegia, besteak beste ondoko hauek: Ganberako lehendakariari eta beste kide batzuei aholku juridikoak ematea; Ganberaren eginkizunak egiteko behar diren artxibo eta espediente juridikoak prestatu eta mantentzea; kontabilitateko erantzukizunaren arloan Nafarroako Comptos Ganberari dagozkion espediente jurisdikzionalak izapidatzea; Nafarroa-

ko Comptos Ganbera kasuan kasuko organo jurisdikzionalaren aurrean ordezkatu eta defendatzea; eta agintzen zaizkion gaiei buruz txosten eta irizpen juridikoak ematea.

1.5. Izendapenak Comptos Ganberako nomina eta plantillako funtzionario bihurtuko ditu izendatuak, xedapen indardunetan adierazitako eskubide eta betebehar guztiekin.

1.6. Lanpostuak A mailakoak dira eta lansariak maila horri dagozkionak izanen dira, eta Nafarroako Comptos Ganberaren plantilla organiko indardunean zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.7. Izendatzen den izangaiari Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean afiliatu eta hartan alta emanen zaio, araubide horretan aurreikusitako babesean, salbu eta lehendik afiliatua ez badago eskubide pasiboen erregimenean eta osasun eta gizarte laguntzan, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta gainerako xedapen osagarrietan aipatzen den hartan, zeren orduan aukeran izanen baitu bertan segitu edo Gizarte Segurantzaren aipatu erregimenean afiliatu.

1.8. Izendatutako izangaiek lanlekua duten herrian bertan bizi beharko dute, eta hori betetzeko udalerri horretan finkatuko dute beren bizilekua.

1.9. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta Comptos Ganberako lehendakariak noiznahi aldatzen ahalko du.

2. oinarria. Hautagaien betebeharrak.

2.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta agiriak aurkezteko epea (deialdiaren 7.3 atalean adierazia) bukatzen den unetik eta lanpostuaren jabetza hartu arte, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Nazionalitatez espainiar izatea.

b) Adin nagusikoa izatea eta erretiroko adina ez izatea.

c) Zuzenbideko lizentziatura tituluaren jabe izatea, edo eskaerak aurkezteko epea betetzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea. Atzerrian lorturiko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen kredentziala eduki beharko da.

d) Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik baztertua ez egotea.

2.2. Igoera txandako izangaiek, aurreko atalean aipatu diren baldintzez gain, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik hasita deialdi honetako 7.3 oinarrian aipatutako agiriak aurkezteko epeak iraun bitartean eta lanpostuaren jabetza hartu arte, honako hauek bete beharko dituzte:

a) Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario izatea, eta jatorrizko lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

b) Deialdiko lanpostuen maila berean edo baxuagoan egotea.

c) Administrazio Publikoetan bost urteko antzinatasun onartua egiaztatzea.

2.3. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. oinarrian ezarritako epean eta eran egiaztatu beharko dira. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko direla ulertuko da.

3. oinarria. Eskabideak.

3.1. Oposizio-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide gisa, eredu ofizialarekin bat (deialdi honen I. eranskina). Bertan jarriko dituzte izen-deiturak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta telefonoa, bai eta zein txandatan lehiatzen diren ere: irekian edo igoerakoan.

3.2. Hurrengoak erantsi behar zaizkio eskabideari:

Deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztelako ziurtagiriak.

Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, II. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkaturik, eta haien egiaztagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Eskabideak Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta egun eta ordu baliodunetan aurkeztuko dira (astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era) Nafarroako Comptos Ganberako Erregistro Orokorrean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hogeita hamar egun naturaleko epean. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduan ere igortzen ahal dira deialdi honetan parte hartzeko eskabideak.

3.4. Minusbaliotasun aitortua duten izangaiek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskabidean eskatzea, eta hartarako, aparteko orri

batean adierazi beharko dute nolako minusbaliotasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera minusbaliatuak direla frogatzeko agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

4. oinarria. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsi eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du. Zerrenda horretan izangai onartu eta baztertuen izena adieraziko da, bai eta zein txandatan lehiatzen diren ere: irekian edo igoerakoan.

4.2. Interesatuek egoki deritzeten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamar egun naturaleko epean.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

5. oinarria. Epaimahaiaren osaketa, eraketa eta jarduera.

5.1. Kide hauek osatuko dute oposizio-lehiaketa honetako epaimahaia:

Mahaiburua:

– Luis Ordoki Urdazi jauna, Nafarroako Comptos Ganberako idazkari nagusia.

Ordezkoa: Ignacio Cabeza Del Salvador jn., Nafarroako Comptos Ganberako auditorea.

Batzordekideak:

– Pablo Díez Lago jauna, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusia.

Ordezkoa: Miguel Esparza Oroz jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

– José Antonio Razquin Lizarraga jauna, Nafarroako Gobernuko Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuko zuzendaria.

Ordezkoa: Fulgencio Larumbe San Martín jauna, Nafarroako Gobernuko aholkulari juridikoa.

– Alberto Pérez Calvo jauna, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Konstituzio Zuzenbideko katedraduna.

Ordezkoa: José Francisco Alenza García jauna, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle titularra, Zuzenbide administratiboaren alorrean.

Idazkaria:

– Jesús Muruzábal Lerga jauna, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea, erakundeko langileen batzordearen ordezkari.

Ordezkoa: José Fuertes Pérez jauna, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea, erakundeko langileen batzordearen ordezkari.

5.2. Epaimahaiak hautapen probak hasi baino lehen eratu beharko du eta eraketa eta jarduketa baliozkoak izateko haien kideen gehiengo osoak agertu beharko du, guttienez.

5.3. Epaimahaiaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburuak eta mahaikide-idazkariak edo haien ordezkoek bertan egon beharko dute.

5.4. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

5.5. Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztientzako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aipatzen diren abstentzio arrazoietako bat gertatzen denean, epaimahaiko kideek ezin izanen dute epaimahaian parte hartu, eta deialdia egin duen organoari eman beharko diote horren berri. Halaber, izangaiek mahaikideak errefusa ditzakete, arrazoi horietako bat gertatzen denean.

5.6. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eska dezake, proba batzuetan nahiz guztietan laguntzeko. Aholkulari horiek dagozkien espezialitate teknikoetan aritzera mugatuko dira, eta epaimahaiari horietan baizik ez diote lagunduko.

6. oinarria. Oposizio-lehiaketaren nondik norakoak.

6.1. Oposizio-lehiaketak bi fase izanen ditu, lehenik lehiaketaldia izanen da eta ondoren oposizioaldia.

6.2. Lehiaketaldia.

6.2.1. Lehiaketaldian, gehienez ere, 20 puntu lortu ahalko dira; 2005eko abenduaren 31 baino lehen ebatziko da eta ez da baztergarria izanen. Alegatu eta egiaztaturiko merezimenduak deialdi honen II. eranskinean azaldu baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak, era honetan banatuta:

a) Merezimendu akademikoak, 3 puntu arte.

b) Legelari edo aholkulari juridiko lanetan izaniko esperientzia, 8 puntu arte.

c) Aurreko atalean baloratu gabeko gai juridiko eta ekonomiko-finantzarioetako lanbide-esperientzia, 6 puntu arte.

d) Legelari gisa bete beharreko eginkizunekin lotura duten beste merezimendu batzuk, esate baterako, hizkuntzak jakitea, txostenak edo komunikazioak mintegi eta biltzarretara bidaltzea, aldizkari espezializatuetan artikuluak argitaratzea, prestakuntza espezializatuko ikastaroetan ibili izana, etab., 3 puntu arte.

6.2.2. Merezimendu guztiak agiri bidez alegatu eta frogatuko ditu izangai bakoitzak lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztean.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu, lehiatzaileek alegatutako merezimenduen gainean.

6.2.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez egiaztatu ez den merezimendurik, eta ez du emanen merezimenduen atal bakoitzarendako adierazitako puntuazioa baino altuagorik.

6.2.4. Merezimenduak kalifikatu ondoren, epaimahaiak partaideek lorturiko puntuazioak paratuko ditu Nafarroako Comptos Ganberako iragarki oholean, eta hamar eguneko epea irekiko du interesdunek beren eskubidearen mesedetan balorazio horri buruz komeni zaiena alega dezaten.

6.2.5. Erreklamazioak aurkezteko epe hori bukatu eta epaimahaiak horiek ebatzi ondoren, berriro paratuko da Comptos Ganberan izangaien zerrenda, lehiaketaldian lortutako behin betiko puntuazioekin, gero oposizioaldian lortzen direnekin batuko direnak, horrela aterako baita oposiziolehiaketan izandako puntuazio osoa.

6.3. Oposizioaldia.

6.3.1. Oposizioaldia 2006ko martxoan hasiko da, Comptos Ganberako iragarki oholean gutxienez ere 30 egun lehenago adieraziko den tokian, egunean eta orduan.

6.3.2. Oposizioaldiak bi ariketa izanen ditu, bata praktikoa eta bestea teorikoa. Bakoitzak bi proba izanen ditu, eta osotara 80 puntuko balorazioa izanen du. Lau probak baztergarriak izanen dira. Gainditzeko haietariko bakoitzean puntuen erdiak lortu behar dira.

6.3.3. Oposizioaldia ariketa praktikoarekin hasiko da, guztira 42 puntuko balorazioa izanen du eta bi proba izanen ditu:

a) Lehenbiziko proba (praktikoa): gehienez ere 5 orduan azterlan, irizpen edo txosten juridiko bat idatziz garatu beharko da, Comptos Ganberako legelarien eginkizunez epaimahaiak proposatzen dituen kasuei buruz. Ariketa hori egiteko, epaimahaiak egokitzat jotzen dituen legezko testu edo agiriak uzten ahalko dizkie izangaiei. Proba honetan 22 puntu lortzen ahalko dira, gehienez ere, eta gutxienez 11 puntu atera beharko dira proba gainditzeko.

b) Bigarren proba (praktikoa): gehienez ere 5 orduan agiri, proposamen edo iruzkin juridiko bat idatziz garatu beharko da, Comptos Ganberako legelarien eginkizunez epaimahaiak proposatzen dituen kasuei buruz. Aurreko ariketan bezala, epaimahaiak egokitzat jotzen dituen legezko testu edo agiriak uzten ahalko dizkie izangaiei. Proba honetan 20 puntu lortzen ahalko dira, gehienez ere, eta gutxienez 10 puntu atera beharko dira proba gainditzeko.

Bi kasuetan, bi proba praktikoen edukia deialdiko III. eranskinean ageri diren gaiei loturik egonen da.

6.3.4. Ariketa praktikoa bukaturik, ariketa teorikoa eginen da, guztira 38 punturekin baloratuko dena, eta, halaber, bi proba izanen dituena:

a) Lehenbiziko proba (teorikoa): gehienez ere 4 orduan agiri, Ogasun Publikoko eta Zuzenbide Finantzarioko gai bat (III. eranskineko 1. multzoa) eta Merkataritza, Zigor, Lan eta Prozesu Zuzenbideko gai bat (III. eranskineko 2. multzoa) idatziz garatu beharko dira. Gaiak zozketaz erabakiko dira. Proba honetan 18 puntu lortzen ahalko dira, gehienez ere, eta gutxienez 9 puntu atera beharko dira proba gainditzeko.

b) Bigarren proba (teorikoa): gehienez ere 6 orduan agiri, Konstituzio Zuzenbideko eta Europako Batasuneko Zuzenbideko gai bat (III. eranskineko 3. multzoa) Administrazio Zuzenbideko gai bat (III. eranskineko 4. multzoa) eta Nafarroako Foru Zuzenbideko gai bat (III. eranskineko 5. multzoa) idatziz garatu beharko dira. Gaiak zozketaz erabakiko dira. Proba honetan 20 puntu lortzen ahalko dira, gehienez ere, eta gutxienez 10 puntu atera beharko dira proba gainditzeko.

6.3.5. Probak idatziz eginen dira. Proba bakoitza egin ondoren, idatziak dauzkaten orriak kartazal batean sartuko dituzte izangaiei. Kartazal horren hegalean interesatuak eta epaimahaiko idazkariak izenpetuko dute. Idazkariak gordeko du. Behar denean, A-B-C hurrenkeran, lehiatzaileak berak izenpeturiko kartazalak epaimahaiaren aurrean ireki eta ariketa jendaurrean irakurriko du. Mahaikideek, probak irakurri ondoren, argibideak

eskatzen ahalko dizkiete izangaiei beren ariketen edukiaz.

Ariketak jendaurrean irakurri ondoren, Epaimahaiak, ariketak aztertu eta zuzendu ondoren, kalifikatuko ditu.

6.3.6. Epaimahaiak Comptos Ganberako iragarki oholean argitaratuko du proba bakoitzeko emaitza, kalifikatu ondoren, eta hurrengo probaren tokia, eguna eta ordua adieraziko ditu, gutxienez ere 24 ordu lehenago. Kalifikazio hori batuko zaio izangaiek lehiaketaldian ateratakoari, eta horrela emanen da oposizio-lehiaketako puntuazio osoa.

6.3.7. Ariketa bakoitzerako dei bakarra eginen da. Horretara Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea, gidabaimena edo epaimahaiak askiesten duen beste nortasun agiri bat aldean dutela joan beharko dute izangaiek. Azterketara agertzen ez direnak edo arestian aipatutako agirietako baten bidez haien nortasuna egiaztatzen ez dutenak oposiziotik baztertuko dira.

6.3.8. Oposizioaldiko probak egiterakoan, eskaera egin duten minusbaliatuendako, denbora eta baliabide aldeko egokitzapenak paratuko dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

7. oinarria. Probak gainditzen dituztenen zerrenda eta agirien aurkezpena.

7.1. Azken ariketa bukatzen denean, oposiziolehiaketa gainditu duten izangaien zerrenda argitara emanen du epaimahaiak Nafarroako Comptos Ganberako iragarki oholean, puntuazioen arabera ordenaturik. Azken emaitzan berdinketarik gertatuz gero, lehiaketaldian puntu gehien lortzen dituen izangaiaren alde joko da.

7.2. Epaimahaiak, halaber, puntuaziorik handiena lortu duten izangaien aldeko izendapen proposamena igorriko dio Comptos Ganberako lehendakariari, eta horrekin batera oposizio-lehiaketaren aktak eta gainerako dokumentazioa. Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7.3. Izendapen proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturaleko epean, proposatutako izangaiek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte Nafarroako Comptos Ganberan:

7.3.1. Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario ez diren izangaiak:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua, edo izangaiaren nazionalitatea eta identitatea frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulua lortzeko eskubideen ordainagiriarena.

c) Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Atalak emandako txostena, interesatuak karguan aritzea eragotziko liokeen eritasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela frogatzeko.

Minusbaliotasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, minusbaliotasun mailaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, aurretik aurkeztu ez badute, hala nola minusbaliotasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria, balorazio eta orientazio talde eskudunek luzatua.

d) Eginkizun publikoetarako ezgaitua edo gabetua ez izatearen, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezi ez izanaren zinpeko aitorpena.

e) Zin egitea edo hitz ematea, Nafarroako Foru Eraentza begiratu, Konstituzioari eta legeei men egin eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituela dioena.

Nafarroako Comptos Ganbera ez den Nafarroako beste Administrazio Publikoren bateko funtzionario edo langile finkoek, gainera, aurreko administrazioko espediente pertsonalean ageri diren inguruabar eta aurrekari guztiak frogatzen dituen ziurtagiria, hots, sarrerari, antzinatasunari, mailari, egoera administratiboari eta abarrei buruzkoa, aurkeztu beharko dute.

7.3.2. Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario diren izangaiak:

a) Deialdiaren 2. oinarrian eskatu den tituluaren fotokopia konpultsatua edo hura lortzeko eskubideen ordainagiriarena.

b) Comptos Ganberako funtzionarioa izateko, erakunde horrexek eskatzen dituen agiriak.

Minusbaliotasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, hori deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria, balorazio eta orientazio talde eskudunek luzatua, aurkeztu beharko dute.

7.4. Norbaitek agiri horiek goian adierazitako epean aurkezten ez baditu, behar bezala arrazoitutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezin izanen dute izendatu eta haren jarduketa guztiak deuseztatu eginen dira. Hori, dena dela, ez da eragozpen izanen eskabidean gezurra errateagatik izan lezakeen erantzukizuna eskatzeko.

7.5. Arestiko atalean azaldutakoa gertatuz gero, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak 7.1. atalean aipatzen den zerrendan ondotik heldu den

izangaiarekin beteko du utzitako hutsunea, eta horrekin ere aurreko ataletako prozedura bera erabiliko da.

8. oinarria. Behin-behineko izendapena.

8.1. Aurreko 7.3 puntuan aipatzen diren agiriak aurkeztu ondoren, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak emandako ebazpen baten bidez, proposatutako izangaien behin-behineko izendapena eginen da. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.2. Izangai izendatuek hilabeteko epea izanen dute lanpostuaren jabetza hartzeko, izendapena jakinarazten denetik hasita.

8.3. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, 7.3 oinarrian eskatzen den dokumentazioa hilabeteko epe horretan aurkezten ez duten edo jabetza hartzen ez duten izangaiak oposizio-lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da, eta hala izanik, aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengoa den izangaiarekin beteko da lanpostua.

9. oinarria. Praktikaldia.

9.1. Legelari izendapen behin betikoa erdiesteko, behin-behinekoz proposatu eta izendatutako izangaiek urtebeteko praktikaldia gainditu beharko dute.

9.2. Praktikaldiari hasiera emanen zaio izendatutako izangaiak behin-behinekoz jabetza hartzen duenean. Jabetza hartzeko hilabete izanen du izendapenaren jakinarazpena jasotzen den egunetik aurrera.

9.3. Praktikaldian izangai izendatuek Nafarroako Comptos Ganberako legelariek dituzten eskubide eta eginbehar berberak izanen dituzte.

9.4. Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak, erakundeko beste kideei entzun ondoren, izangaiek praktikaldian izandako aprobetxamendua baloratuko dute eta bukaeran ebazpen arrazoitu baten bidez, “gai” edo “ez gai” kalifikazioa emanen du.

10. oinarria. Legelarien behin betiko izendapena eta jabetza hartzea.

10.1. Hautagaiak, aurreko oinarriak aipatzen duen praktikaldia bukatu eta “gai” kalifikazioa lorturik, Comptos Ganberaren lehendakariak behin betiko funtzionario izendatuko ditu. Izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

10.2. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean, izangaiek karguen behin betiko jabetza hartuko dute.

10.3. Aipatu epean jabetza hartzen ez duen izangaiak oposizio-lehiaketaren ondoriozko eskubideei uko egiten diela ulertuko da, eta hala izanik, deialdiaren 7. oinarrian aipatzen den proposamenean hurrengoa den izangaiarekin beteko da lanpostua, dagokion praktikaldiaren ondotik.

10.4. Era berean jokatuko da, aurreko atalean adierazi bezala, baldin eta aipatu praktikaldian behin-behinekoz izandatutako izangaiak “gai” kalifikazioa erdiesten ez badu.

11. oinarria. Aurkezturiko agiriak.

11.1. Izangaiek espresuki hala eskatuz gero, aurkezturiko agiriak berreskuratzen ahal dituzte, erreklamaziorik edo errekurtsorik paratu ez bada betiere. Agiriak berreskuratzeko eskaera hiru hilabeteko epean aurkezten ahal da, behin betiko izendapenaren ebazpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta beste hiru hilabeteren buruan.

11.2. Aurreko atalean ezarririko epea agiriak eraman gabe bukatzen bada, ulertuko da izangaiak uko egin diola agiriak eskuratzeari eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsituko dira.

11.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkezturiko agiriak gorde eginen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak eramaten ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoaren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

12. oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Nafarroako Comptos Ganberako lehendekariari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo bereko Salari zuzendua, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Deialdi hau aurrera eramateko epaimahaiak hartzen dituen gainerako egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa paratzen ahalko da, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari igorria,

egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

I. ERANSKINA
Eskabide eredua

Izen-deiturak: ....., adina: ....., NAN zenbakia: ....., helbidea (kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea): ..... telefono zenbakia: ....., adeitasunez,

ADIERAZTEN DU:

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak 2005eko apirilaren 1ean harturiko erabakiaren berri izan dut -haren bidez, auditoretzako teknikari izateko bi lanpostu betetzeko dei egin da- eta hartan parte hartu nahi dut:

Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren betebehar guztiak betetzen ditut eskabideak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Txanda hau aukeratzen dut: .....

Horrenbestez,

ESKATU DU:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merezimenduen egiaztagiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2005eko .....aren ....(e)an.

II. ERANSKINA
Merezimenduak baloratzeko baremoa

a) Merezimendu akademikoak, 3 puntu arte.

Egindako ikasketetan lortutako bikain bakoitzari 0,05 puntu emanen zaizkio, eta 0,10 ohorezko matrikula bakoitzari, baldin eta epaimahaiari lanpostuko eginkizunekin loturiko irakasgaietan lortuak direla iruditzen bazaio. Atal honetan doktoretzako probari 0,60 puntu emanen zaizkio baldin deialdi honetan parte hartzeko ezarritako goi mailako ikasketei buruzkoak badira.

Atal honetan bertan baloratuko dira legelari lanpostuko eginkizunekin lotura duten beste titulazio eta unibertsitateko ikasketa batzuk, 0,80 puntu bakoitzeko erdi mailako titulazioen kasuan eta puntu 1,20 goi mailakoenean.

Aurreko ataletan baloratu gabeko ikasturte akademiko oso bakoitzarengatik edo haren kreditu baliokideengatik 0,20 puntu emanen dira.

Unibertsitateko master bakoitzari 0,50 puntu emanen zaizkio, baldin eta ikasturte batek edo haren kreditu baliokideek adinako iraupena badute gutxienez, eta epaimahaiak bere esku izanen du puntuazio hori masterraren iraupenaren arabera eta lanpostuko eginkizunekin haren edukiak duen loturaren arabera egokitzea.

b) Legelari edo aholkulari juridiko lanetan izaniko esperientzia, 8 puntu arte.

Legelari, aholkulari juridiko, idazkari tekniko, udal idazkari edo antzeko lanetan emaniko urte oso bakoitzagatik 0,40 puntu emanen dira atal honetan, lanpostu horietarako Zuzenbideko lizentziatu titulu berariazkoa eskatu bada. Bereziki sektore publikoan eginiko lanak lehenetsiko dira.

c) Aurreko atalean baloratu gabeko gai juridiko eta ekonomiko-finantzarioetako lanbide-esperientzia, 6 puntu arte.

Atal honetan gai juridiko eta ekonomiko-finantzarioei loturiko eginkizunak baloratuko dira, berariaz Zuzenbideko lizentziatu-titulua eskatu ez bada, bai sektore publikoan bai pribatuan. Urte bakoitzagatik 0,30 puntu emanen dira. Betiere, lanpostu horietarako gutxienez erdi mailako titulua eskatu beharko da. Aurreko atalean bezala, bereziki sektore publikoan eginiko lanak lehenetsiko dira.

d) Legelari gisa bete beharreko eginkizunekin lotura duten beste merezimendu batzuk, esate baterako, Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea, euskaraz jakitea, prestakuntza espezializatuko ikastaroetan ibili izana, artikuluak eta txostenak edo komunikazioak biltzar eta mintegietara bidaltzea etab., gehienez ere 3 puntu arte.

Hizkuntzak jakitearen atalari dagokionez, 0,10 puntu emanen dira Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialeko maila oso bakoitzeko, baldin eta behar bezala frogatzen bada.

Atal honetan baloratuko da, aurrekoez gain, entitate bai publiko bai pribatuek antolatutako prestakuntza-ikastaroetan ibili izana, baldin eta 20 ordutik gorako iraupena badute gutxienez eta lotura baldin badute legelari lanpostuko eginkizunekin, eta 0,05 puntu emanen da 20 prestakuntza-ordu edo balio bereko zati bakoitzeko.

Txosten edo komunikazioak biltzar eta mintegietan edo artikuluak aldizkari espezializatuetan aurkezteari dagokionez, baldin eta haien edukiak lotura baldin badu legelari lanpostuko eginkizunekin, 0,25 puntu emanen zaizkio artikulu, txosten edo komunikazio bakoitzari.

A mailako lanpostuetarako administrazio publikoetako oposizioak edo oposizio-lehiaketak gainditu izana, horietarako deialdi honetan eskatzen den titulua edukiz gero: 0,80 puntu gaindituriko deialdi bakoitzagatik.

Baremoaren puntuak aplikatzeko oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako denborari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaie lehiatzaileei.

2. Lanaldi partzialean egindako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

3. Ez dira baloratuko deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoan egindako zerbitzuak, ez eta lortutako merezimenduak ere.

4. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldietako zerbitzuak egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin balitu bezala kontatuko dira. Funtzionario izendapen behin betikoa izan baino lehen egindako praktiketan emandako denbora ere osorik baloratuko da.

5. Ikastaro eta mintegiei dagokienez, baloratu beharreko ikastaroen orduen zatiak proportzionalki kalkulatuko dira, baldin eta 20 orduko gutxienekotik 40ra artekoak badira.

III. ERANSKINA
Gai zerrenda

1. multzoa
Ogasun Publikoa eta Zuzenbide Finantzarioa

1. gaia. Sektore Publikoa merkatu-ekonomian. Mugatzea, neurketa-irizpideak, garrantzia eta bilakaera. Kontabilitate Nazionala eta Sektore Publikoa. Ogasun Publikoa. Gaurko edukiak.

2. gaia. Ogasun publikoa pentsamendu ekonomikoan. Ogasun Publikoa merkantilista, fisiokrata eta klasikoen arabera. Marginalismoa. Keynesianismoa eta Ogasun Publikoari buruzko beste eskola batzuk. Ogasun publikoari buruzko teoria positiboak.

3. gaia. Aurrekontua hautapen sozialeko tresna gisara. Aurrekontua: alderdi orokorrak. Aurrekontuen zikloa. Aurrekontuen ereduen egungo egoera eta etorkizuneko aukerak.

